



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO  
HEZKUNTZAFAKULTATEA  
FACULTAD DE EDUCACIÓN  
DE BILBAO



# Lehen Hezkuntza

**3. moduluaren gida:**

**“KOMUNIKAZIO-GAITASUNAK”  
DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA**

**2023-2024**

## AURKIBIDEA

1. Diziplina arteko lana (DAL) Lehen Hezkuntzako 3. moduluan .....	2
1.1. Kokapena .....	2
1.2. Antolakuntza.....	2
1.3. Arautegia eta salbuespenak .....	3
2. DAL proposamena .....	4
2.1. Aurkezpena .....	4
2.2. Helburuak .....	4
2.3. Gaitasunak eta ikaste-emaitzak.....	5
2.4. Proiektuetan oinarritutako metodologia .....	6
3. DALaren garapena .....	6
3.1. Lanaren planteamendua.....	6
3.2. Lan prozesua .....	7
3.3. Aurkeztu beharreko lanak .....	8
4. Ebaluazioa .....	9

## ERANSKINAK

1. Proiektua gauzatzeko kronograma .....	11
2. Talde-bileren akta-eredua.....	13
3. Kultura-ondarearen fitxa.....	14
4. Koebaluazio-galdetegia .....	15
5. Irakasleen ebaluazio-txantiloia .....	16

## 1. DIZIPLINA ARTEKO LANA LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MODULUAN

### 1.1. Kokapena

Lehen Hezkuntzako Graduaren ibilbidea moduluka egituratuta dago; hau da, graduaren ikaste-prozesua izaera propioa duten unitateetan antolatzen da, eta unitate horietan lantzen diren alderdiak elkarri lotuta daude.

Moduluaren izaera hau dela eta, osatzen duten irakasgaiak, bakoitzaren zeregin espezifikoak lantzeaz gain, modu bateratuan ere aritzen dira; arlo guztiak elkarrekin uztartu eta fusionatzeko tresna *Diziplina arteko lana* (DAL) izanik.

“Komunikazio-gaitasunak” deritzon 3. moduluan, eskolako testuinguruan komunikazioarekin zerikusia duten alderdiak aztertu eta lantzen dira.

Modulu honetako DALari 3,5 kreditu dagozkie guztira. DALak irakasgai bakoitzaren % 16 hartzen du, urte osokoa den *Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza* irakasgaia izan ezik, kasuhonetan % 8 izanik.

3. modulua lau irakasgai osatzen dute eta DALaren kredituak irakasgai bakoitzak moduluan daukan neurriaren arabera banatzen dira.

LHko Graduko 3. MODULUKO DIZIPLINA ARTEKO LANAREN ATALA IRAKASGAIAK		
IRAKASGAIK	Kredituak	Kalifikazio Portzentaia
Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza	0,5 K	% 8
Komunikazio Gaitasunaren Garapena - Euskara eta Gaztelania- Lehen Hezkuntzan II	1 K	% 16
Musika, Lehen Hezkuntzan	1 K	% 16
Ikastetxearen Antolakuntza	1 K	% 16

### 1.2. Antolakuntza

- DALa talde-lanean oinarritzen da, eta taldeak 5-7 kidekoak dira, gutxi gorabehera (ikasturtearen arabera zehazten da kopurua, matrikulatutako ikasleen arabera). Lan-taldeak ikasturteko lehenengo bi asteetan zehar antolatzen dira.
- Talde bakoitzak irakasle-tutore bat izango du lan-prozesuan laguntzeko. Bi tutoretza-saio izango ditu, gutxienez.
- DALa egiteko denbora-tarteak: ikasturteko bi klase aste (DAL asteak), bestelako klase-ordu banaka batzuk eta ikasgelaz kanpoko ordu ez-presentzialak.
- DALa egiteko, ikasle bakoitzak 87,5 bat lanordu egin beharko ditu.
- Lanak euskaraz aurkeztuko dira

**Oharra: ezohiko egoera suertatu eta klase presentzialak bertan behera geratzen badira, DALa modu ez presentzian bideratuko da, beharrezko egokitzapenak abian jarritz.**

### 1.3. Arautegia eta salbuespenak

- **DALa egitea nahitaezkoa da**, eta irakasgai bakoitzaren % 16 hartzen du; beraz, azken kalifikazioan ere ehuneko hori emango zaio. Urte osoko irakasgaien kasuan, % 16 hau kalkulatzeko lauhileko bakoitzean burututako DALak kontuan hartuko dira, azken kalifikazioa bien arteko batz bestekoa izanik.
- **Mugikortasun programetako ikasleak**: modulu berdineko hiru irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta badaude, DALa egin beharko dute.
- DALa gainditu baina irakasgaia suspenditzen den kasuetan, kalifikazioa ezohiko deialdira arte gordeko da (ekaina/uztaila).
- Ebaluazio jarraiaz kanpo geratzen diren ikasleak gida honetan proposatzen den lan-prozesua indibidualki burutu beharko dute, eskatzen diren lan guztiak aurkeztuz. Ikasle hauek ez dute tutorerik izango. Ebaluazioaz moduluko bi irakaslek osatutako epaimahaia arduratuko da. Ebaluazio-modalitate hau azken ebaluazio bidez ebaluatzen diren ohiko deialdiko ikasleei eta ezohiko deialdikoei zuzenduta dago.
- Ebaluazio jarraiaren ordeaz azken ebaluazio bidez ebaluatzeko, beharrezkoa izango da ikasleak ondorengo baldintzaren bat betetzea:
  - o Ikaslea egoera berezi batean egotea (goi mailako kirolariak izatea, adibidez), hala badagokio.
  - o DALaren parte den irakasgai batean ebaluazio jarraituari uko egin eta azken ebaluazio eskabidea aurkezten duen ikaslea izatea, betiere azken ebaluaziorako eskabidea garaiz eta idatziz aurkeztu badu.<sup>1</sup>

#### DAL-a egiteaz salbuestea

- Graduak ohiko ikasleak zein mugikortasun programetako ikasleak, modulu bereko hiru irakasgai baino gutxiagotan matrikulatuta badaude ez daukate DALa egin beharrik.
- Aldi berean bi modulutan dauden ikasleen kasuan (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dituztelako), irakasgai gehien daukaten moduluko DAL-a egin beharko dute soilik. Bi moduluetan irakasgai kopuru bera badute, goreneko mailako moduluko DALa egingo dute.
- DALa egin behar ez duten ikasleen kasuan irakasgaiaren ebaluaketak kalifikazioaren % 100 suposatuko du, DAL portzentaia aplikatu gabe.

Salbuestea gauzatzeko, aipatutako egoeraren baten dagoen ikasleak modulu edo titulazio koordinatzailearekin kontaktuan jarri eta honen berri emango dio, DAL zerrendatik ateratzeko.

<sup>1</sup> EHUko araudi akademikoa: <https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/akademia-araudiak>

## DAL PROPOSAMENA

### 2.1. Aurkezpena

Proposamen honetan moduluko irakasgaiekin erlazionatutako lengoaiak (ikus, soinu eta hizkuntza) elkarrekin uztartu eta eskola-esparrura bideratu nahi dira, diziplinartekotasuna medio. Horretarako, ondorengo bi arloak lantzea proposatzen da: **ikus-entzunezko lengoia komunikaziorako adierazpide gisa eta kultura-ondarea eduki edo aztergai gisa.**

**Ikus-entzunezko lengoaiak** modulu honetako irakasgaiak elkarrekin landu eta integratzeko aukera eskaintzen du. Izan ere, teknologia medio, aipatutako lengoia ezberdinak lotzen ditu, elkarri egokituz. Gainera, ikus-entzunezko hizkuntza egungo komunikazio-baliabide garrantzitsuenetariko bat izanik, eskolan modu eraginkorren erabiltzeko gaitasunak garatzea aberasgarria izango da etorkizuneko irakasleentzat.

**Kultura-ondareari** dagokionez, gizakiak urteetan zehar azaldutako adierazpenen isla dugu, eta komunikazio-baliabideak herentzia honen parte garrantzitsua dira. Horrez gain, kultura-ondareak giza komunitatearen sustraiekin lotura zuzena dauka; talde-identitatearekin zerikusia du eta kontzientzia kolektiboaren eragilea da.

Hau horrela izanik, gure kultura-ondarearen transmisioa eskolan zaintzea beharrezkoa da eta irakasleak horretarako prest egon behar dute, ikuspegi inklusibo eta bateratzaile batetik abiatuz eta **emakumeek kultura arloan egindako ekarpenak** kontuan hartuz; beraz, Lehen Hezkuntzako graduaren kultura-ondarea monografikoki lantzeak graduaren prestakuntza eskaintza aberastea ekarriko du. Modu berean, garrantzi handikoa da ondarea begirada kritikiko baten bitartez berreraikitzea, **genero ikuspegia zeharkako ardatz izanik**, kultura zein nortasun kolektiboaren transmisioa androzentristotik aldentzeko.

Laburbilduz, DAL honetan *ikus-entzunezko lengoia* eta *kultura-ondarea* elkarrekin landuko dira eta horretarako tresna *Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI)* izango da.

### 2.2. Helburuak

- Ikus-entzunezko lengoaiaren erabileran trebatzea:
  - o Irudian, hitzean eta soinuan oinarritzen diren lengoaiak elkarrekin uztartu, integratu eta ikus-entzunezko lengoaiaren moduetara egokitzen ikastea.
  - o Ikus-entzunezko lengoaiaren erabilera espresibo eta didaktikoan trebatzea.
  
- Euskal kultura-ondarea eskolan ezagutaraztearen garrantziaz jabetu eta horretarako baliabide didaktikoak sortzea:
  - o Kultura-ondareari buruzko ezagutzak eskuratzea.
  - o Informazio-iturrien bilaketa eta erabilera modu egokian bideratzea.
  - o Kultura-ondarearenganako jarrera kritikoa eta erantzukizunean oinarritutakoa sustatzea.
  - o Lehen Hezkuntzan kultura-ondarea ezagutarazteko ikus-entzunezko baliabide didaktikoak sortzea.

## 2.3. Gaitasunak eta ikaste-emaitzak

GAITASUNAK	IKASTE-EMAITZAK
G1: Ikastetxearen antolakuntzarako material berria sortu eta sailkatu inguru sozialaren (ezagutzaren gizartea eta bertako testuinguru soziokulturala) eta inguru instituzionalaren (hezkuntza sistema eta hezkuntza administrazioa) ezaugarriei erreparatuz.	Haurtzaroari lotutako kultura-ondasunetan azter daitezkeen oinarrizko kontzeptuak ulertzen ditu eta hautatzeko gai da. Bildutako kultura ondasunak abiapuntutzat hartuta, iker daitezkeen ezaugarriak eta eszenatokiak proposatzen ditu. Egungo ikastetxeen inguru sozialaren (ezagutzaren gizartea eta bertako testuinguru soziokulturala) eta inguru instituzionalaren (hezkuntza-sistema eta hezkuntza-administrazioa) ezaugarriak nahiz ikastetxeen erronka nagusiak identifikatzen ditu. Horrenbestez, ikastetxe batean lantzeko moduko kultura-ondasunak lantzeko proposamenak diseinatzeko gai da
G2: Ikaskuntza, gizalegeko prestakuntza eta kultura-aberastasuna sustatuko dituen ikus-entzunezko informazioa antzeman eta bereiztea.	Lehen Hezkuntzarako entzunaldi, kantu, dantza eta jarduerak diseinatu eta gauzatzeko gai da. Modu aktiboan parte hartzen du eta esperientzia eta iritziak trukatzeko. Lehen Hezkuntzaren testuinguruan agertzen diren askotariko testuak erabili, sortu eta prozesatzeko gai da. Ondorio kritikoak erazten ditu, eta azken txostenean jaso.
G3: Kultura, musika eta arte-adierazpenak modu kritikoan ezagutu, ulertu, estimatu eta aintzat hartzea, aberastasun eta gozamen-iturri gisa erabiltzea, eta herrien ondarearen ezaugarritzat jotzea.	Ekoizpen artistikoak eta estetikoak modu kritikoan aztertzeke gai da, ikusizko lengoaiak kultura adierazteko, komunikatzeko eta ulertzeke tresna gisa erabilita, eta informazioa eta dokumentazioa jasotzeko, behatzeko eta hautemateko prozesuak aplikatuta. Musika-adierazpenen askotariko eredu eta erabilerak ezagutzen ditu. Lehen Hezkuntzan musika-ondarea ezagutzera emateko proposamenak egiten ditu. Lehen Hezkuntzarako entzunaldi, kantu, dantza eta jarduerak diseinatu eta gauzatzen ditu.
G4: Taldean lan egitea eta partaidetza, erantzukizuna, auto-estimua, sormena, adiskidetasuna, askatasuna, lasaitasuna, dibertsioa, bizipoza eta uneko jardueretako kontzentrazioa bultzatzea.	Irakasleek ezarritako epemugen arabera lan-egitarau adostua prestatzeko gai da. Taldearen eginkizunak banatzen ditu. Ikaskideei zein material bildu diren eta lanari zer ekarpen egiten dioten azaltzen du. Taldearen indar-guneak eta ahulguneak identifikatzen ditu, eta hobetu beharreko alderdiak proposatu. Taldea egindako lan-saioak bilduko dituen txosten bat (aktak) editatzen du.
G5: Euskara/gaztelania menderatzea testuinguru eleaniztunetan, hezkuntza-lanerako adierazpen eta ulermen egokia erakutsiz, eta kultura-aniztasunari begira errespetuan oinarritutako jarrerak garatuz.	Amaierako aurkezpenaren eta idatzizko txostenaren arteko koherentzia zaintzen du. Moduluko arloak integratuko dituen proposamen didaktiko bat egin du. Aurkezpenaren batasuna eta koherentzia zaintzen ditu. Adierazpen-lengoaiak (musika, plastika edota gorputz-heziketa) darabiltza. Taldekide guztien partaidetza bermatzen du. Sormena eta originaltasuna lantzen ditu.
G6: Informazioa bilatzeko eta informazioaren eta komunikazioaren askotariko teknologiak baliatzea, arteen eta ikusizko kulturaren hezkuntzaren, ikastetxearen antolakuntzaren, komunikazio-gaitasunaren Garapena eta musikaren esparruko ekoizpen soilak sortzeko.	Askotariko informazio-iturriak erabiltzen ditu. Ahozko diskurtsoan, erabili diren askotariko informazio- eta komunikazio-bitartekoak era egokian integratzen ditu. Askotariko informazio-iturrien bidez bildutako datuak modu kritikoan aztertzen ditu. Idatzizko txostenean, erabili diren askotariko informazio- eta komunikazio-bitartekoak era egokian integratzen ditu.
G7: Egoki hitz egitea eta idaztea, eta adierazpen-teknikak erabiltzen jakitea.	Idatzizko txostenean gidako atal guztiak behar bezala txertatzen ditu. Arlo ezberdinetako terminologia espezifikoa darabil. Ortografia eta gramatika zuzenak darabiltza. Ideiak modu ordenatuan, koherentean eta logikoan aurkezten ditu. Taldea talde-lanaren dinamikara egokitzen da. Aurkezturiko ideiak arrazoitzen ditu. Moduluko arlo guztiak integratzen ditu. Zentzu kritiko eta sormena lantzen ditu. Bideo-proposamena ikasleen balore eta jarrera egokiak sustatzeko erabiltzen du.

## 2.4. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (POI)

DAL honetan Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) delako metodologia erabiliko da.

Metodologia honen ardatzak ikaslea eta bere ikaskuntza-prozesua dira:

- Proiektuaren xedea erronka edo egoera-gako batean datza. Honi aurre egiteko, ikasleek taldeka egin beharko dute lan. Galdera-sorta sortzaileen bidez, ikerketa-bidea eraiki eta proiektua gauzatzeko urratsak emango dituzte. Ibilbideari jarraituz proposatutako erronka lortuko da.
- Ikasle-taldeak proposatutako egoera aztertu eta horren arabera lana antolatu behar du, jardueren plangintza egin eta zereginak banatuz. Urratsak eman ahala, ondorengoak aurre-ikusitako eta erabakiak hartzen joango dira prozesuan zehar.
- Metodologia honek jarrera aktiboa eta taldekideekiko elkarlana eskatzen dio ikasleari: ideia, iritzia, teoria, saiakerak eta bestelakoak etengabe erkatu beharko ditu, adostasun arrazoitua lortzeko. Talde-gogoeta da metodologiaren muina, taldeak hasiera batean daukan ezagutzari buruzko hausnarketatik abiatuz ezagutza berria sortzera bultzatzen baitu.

## 3. DALAREN GARAPENA

### 3.1. Lanaren planteamendua

POI metodologiari jarraituz, lehenengo eta behin proiektu honen helburua edo erronka nagusia proposatzen da. Ondoren, helburua lortzeko kateatzen joan beharreko urratsak proposatuko dira.

Ibilbidea hasi aurretik, komeni da lan-taldea kokatu eta egin beharrekoan zentratzea: erronka nagusia eta eman beharreko urratsak gainbegiratu beharko ditu, horren arabera antolatzeko. Lanari ekiterakoan, ikuspegi irekia eta malgutasunez jokatzeko mesedegarriak izango dira, urratsak eman ahala ondokoak berregokitzen joateko.

*Proiektuaren erronka nagusia:*

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ikus-entzunezko komunikazio-proiektu bat sortzea, **bideo bat**, kultura-ondarearen berri eman eta ondarearekiko errespetu- eta erantzukizun-jarrerak eta -baloreak sustatzeko.

*Proiektua gauzatzeko urratsak:*

Lehenengo urratsetan kultura-ondareari buruzko ikerketa abian jarriko da, informazioa bildu eta aztertuz: definizioak eta sailkapenak; inguruko kultur ondasunen adibideak (argazkiak, herri-monumentuak, herri-esaerak, industriaren aztarnak, kantuak, dantzak...). Osteen, alderdi didaktikoa garatuko da. Azken urratsean Lehen Hezkuntzara zuzendutako bideoa sortuko da.

### 3.2. Lan-prozesua

Ondorengo taulan lan-prozesuaren zehaztasunak azaltzen dira. Horrez gain, 1. eranskinean kronograma aurki daiteke.

LAN-PROZESUA	
URRATSAK	PROZEDURA
<p>1. <i>Zer da kultura-ondarea?</i></p> <p><i>Zein kultura-ondare mota daude?</i></p> <p><i>Zertarako balio du kultura-ondareak?</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer dakigu gai honi buruz? Honi buruz ezer entzun edo jaso dugu? Erantzuna aurkitzeko, bilatu hainbat aukera (hipotesi). Horretarako, <b>taldekide bakoitzak idatziz</b> jaso beharko ditu <b>bere</b> aurre-ezagutzak eta <b>informazioa</b> biltzeko arakatu duena.</li> <li>- Taldean guztien ekarpenak komunean jarri ondoren, informazioa osatzeko bilaketa antolatu: non bilatu, bilaketa-zereginak banatu... Informazioa biltzerakoan hainbat alderdi kontuan hartu beharko dira: definizioak, sailkapenak, bilakaera, erakundeen hitzarmenak...</li> <li>- Taldean, bildu, aztertu eta sailkatu jasotako informazioa.</li> <li>- Taldean, adostu eta <b>idatzi</b> egindako galderari emandako <b>behin betiko erantzunak</b>.</li> </ul>
<p>2. <i>Zein da gure ingurune kultura-ondarea?</i></p>	<p>Galdera honetan gure kultura-ondarea ikertzea proposatzen da; hau da, <b>kultura-ondasunen adibide zehatzak bilatu eta aztertzea</b> (2.1). Adibideak identifikatu eta sailkatzeko, aurreko galderarekin eskuratutako ezagutzak kontuan hartu eta aplikatuko dira.</p> <p>Bilaketak egiteko, inguruko informazio-iturriak erabil daitezke: norik bere errealitate hurbilean eginiko landa-lana, argitalpenak, kultur erakundeen informazio-zerbitzuak, elkarrizketak, turismo-bulegoak, web orrialdeak...</p> <p>Ikuspegia zabala da eta adibideak askotarikoak izan daitezke. Dena den, horien arteko batzuk moduluko irakasgaietan lantzen diren hiru lengoaiekin (<b>musika, artea eta ikusizko kultura, eta hizkuntza eta literatura</b>) <b>lotuta</b> egon beharko dute.</p> <p>Laburbilduz, atal honetan bete beharreko pausuak hurrengoak dira:</p> <p>2.1. <b>Taldekide bakoitzak</b> bere ikerketa propioa egingo du, <b>gutxienez kultura-ondasunen 4 adibide</b> konkretu identifikatuz eta bakoitzaren <b>fitxa</b> osatuz (fitxa-eredua 3. Eranskinean dago).</p> <p>2.2. Taldeko kide guztiek osatutako <b>adibideak (fitxak) bateratuko dira</b>.</p> <p>2.3. Ondasun kulturalen adibide batzuen baitan (edota fitxetan agertzen ez diren beste batzuk kontutan hartuz) <b>horiek elkarlotzen dituen gai edo ildo nagusi bat proposatuko da</b>.</p> <p>2.4. Gai edo ildo/ikuspegi horren <b>justifikazio laburra</b> idatziko da.</p>
<p>3. <i>Gaiaren justifikazioa: zertarako balio du aukeratutako kultura-ondareak? Zer ikasteko aukera eskaintzen digu?</i></p>	<p>3. atala <b>taldean</b> adostu eta <b>idatziko</b> da. Hurrengo 2 azpiatalek osatzen dute:</p> <p>3.1. Aukeratutako gaiaren eta berorri loturiko adibideen inguruko <b>marko teorikoa edo testuingurua idatziko da</b>.</p> <p>3.2. Gaiaren <b>balio didaktikoaren</b> inguruan hausnartuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere onurak: garapen pertsonala, kultura-ondarearekin identifikatzea, giza komunitatearekin loturak uztartzea eta kidetza-sentipena...</li> <li>• Kultura-ondarea ezagutzeko, berau hezkuntzan lantzearen garrantzia, Lehen Hezkuntzako Curriculumarekin loturak ere kontuan hartuz. (Informazio-iturrien aipamenak argudioak sendotzeko baliagarriak izango dira)</li> </ul> <p>-</p>



<p>4. <i>L H-ko ikasleriari kultura-ondarea ezagutarazteko bideo didaktikoa sortzea</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideoa grabatu aurretik proposamen zehatz bat aurkeztu behar da, hurrengo zehaztasunak finkatuz: <ul style="list-style-type: none"> <li>• LHko <b>zein mailari</b> edo <b>ziklori</b> zuzenduta dagoen. Dagokion adineko ikasleen ezaugarriak (errealitatera hurbildu eta ezagutzeko modua, interesak...) eta Oinarrizko Curriculumeko irizpideak kontuan hartu beharko dira bideoaren planteamenduan, eskainiko duen informazioa aukeratzekoan eta adierazpenetan.</li> <li>• Hautatutako testuinguru kulturalaren arabera, azaldu egin beharko da zein eremu geografikotako eskoletara bideratuko den bideoa</li> <li>• <b>Helburu didaktikoak</b> zehaztu behar dira.</li> <li>• Bideoa egiteko erabilitako lanabesak zehaztu behar dira: gidoi literarioa, gidoi grafikoa (<i>story board</i>), erabiliko diren <i>softwarea</i> eta tresnak.</li> </ul> </li> <li>- Gidoiaren arabera zehaztutako atalak grabatu eta <b>bideoa</b> editatuko da. <b>5-10 minutuko iraupena</b> izango du.</li> </ul>
---	--

### 3.3. Aurkeztu beharreko lanak

#### 1. Txosten idatzia

- Funtsean, lan-prozeduran egindako ekarpenak jaso behar ditu txostenak.
- Lanaren gorputza taldean adostutako edukiz osatuko da eta gehienez 15 orrialde izango ditu.
- Eranskinetan taldekideen ekarpen indibidualak, koebaluazioa eta informazio osagarriak (fitxak, gidoi grafikoa...) jasoko dira.
- Kontsultatutako iturriak aipatu behar dira eta aipamenak APA 7 arauen arabera egingo dira.

Txostena antolatzeke ereduak:

Azala

Aurkibidea

Sarrera

1. urratsa (taldekoa)

2. urratsa (taldekoa)

3. urratsa (taldekoa)

4. urratsa (taldekoa)

Bibliografia-erreferentziak

ERANSKINAK

1. urratsa (banakakoa)

2. urratsa (banakakoa)

3. urratsa (banakakoa)

Dokumentazio osagarriak Talde-

bileren aktak (2. eranskina)

Koebaluazio-fitxak (4. eranskina)

## 2. Bideoa

- 3.2-Lan prozesua atalean azaldutako irizpideei jarraituz 5-10 minutuko bideoa sortzea.
- Ikus-entzunezko lengoaiak berezko dituen adierazpen-baliabideak (irudia, soinua, narratiba...) erabiltzeko saiakera izango da.

## 3. Ahozko defentsa

- Egindako lanaren azalpen argudiatua 10 minututan. Bideo proiektzioarekin batera, modu jarraituan egingo da.
- Aurkezpen argia eta ondo antolatua, adierazpen-baliabideak modu egokian erabiliz: hizkera, ahotsa, lengoia ez-berbala...
- Aurkezpenerako gidoi eredu orokorra: norbera aurkeztu, gaiaren justifikazioa, azalduko diren atalen aurkezpena, atalen azalpena, ondorioak.

## 4. Ebaluazioa

### *Ebaluazioaren testuingurua eta baldintzak*

- DALak irakasgai bakoitzaren notaren % 16 balio du (*Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza* irakasgaiaren % 8).
- DALa nahitaezkoa izanik,<sup>2</sup> gainditzeko ezinbestekoa izango da asistentzia eta talde-laneko eginbeharrak betetzea. Hortaz, irakasleek ikasleen parte-hartzea gainbegiratu dute.
- Azken ebaluazioa dagokien ikasleen kasuan, gida honetan planteatzen den lan-prozesua banaka gauzatu eta eskatzen diren lanak aurkeztu beharko dituzte. Ebaluaketa moduluko bi irakaslez osatutako epaimahaiaren esku egongo da.
- DALa gainditu arren irakasgaia suspendituta badago, DALaren nota ezohiko deialdira arte gordeko da (ekaina/uztaila).
- DALa gainditu ez bada, lanak zuzendu eta ezohiko deialdian berriz aurkeztu ahal izango dira. Bigarren honetan ere gainditu ezean, suspenditutako kalifikazioa moduluko irakasgaiaren ebaluaketan hartuko da kontuan.
- Txosten idatziak gutxieneko adierazpen-mailarik izan ezean (zuzentasun ortografikoa eta gramatikala; informazio ulergarria, koherentea eta ondo antolatua), tutoreak ez du zuzenduko eta ikasleei bueltatuko die modu egokian berridatz dezaten.
- Plagioa suertatuko balitz (beste lan edo aipatu gabeko argitalpenetako testuak erabiltzen badira), DALa berehala suspendituko da.

### *Ebaluazioa*

- Aintzat hartuko dira lan-prozesua, emaitzen kalitatea eta partaidetza.
- Ebaluazioa tutorearen eta lan-taldeko ikasleen esku egongo da (ikus 4. eta 5. eranskinak).

Azken kalifikazioa:

<b>Alderdia: zer ebaluatzen den</b>	<b>Kalifikazioaren ehunekoa</b>	<b>Arduraduna: nork ebaluatzen duen</b>
Lan-prozesua, partaidetza eta ekarpenak	% 10	Lan-taldeko ikasleen artean: koebaluzioa
Lan-prozesua, txosten idatzia, bideoa eta ahozko defentsa	% 90	Irakasle-tutorea
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Idatzizko txostena</li><li>▪ Bideoa</li><li>▪ Ahozko defentsa</li></ul>	30% 40% 20%	

<sup>2</sup> Edonola ere, ebaluzioaz, irakurri UPV/EHUko 2017ko martxoaren 13ko Agintaritzaren Aldizkarian ematen diren ebaluzio-xedapen orokorrak.

# ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA: Proiektua gauzatzeko kronograma

3. MODULUAREN EGUTEGIA		DALaren LAN-PROZESUA		
Astea	Antolaketa	Urratsak	Ekintzak	Noren esku
Irailak 11-15	Klaseak	<p>1. <i>Zer da kultura-ondarea?</i></p> <p><i>Zein kultura-ondaremota daude?</i></p> <p><i>Zertarako balio du kultura-ondareak?</i></p>	Hasierako aurkezpena	Irakaslea
Irailak 18-22	Klaseak		Gaian kokatu	Banaka Taldean
			<p>1.1. Aipatutako galderei buruz dakiguna argitu</p> <p>1.2. Informazio bilaketa</p>	
		<b>Kultura-Ondarearen inguruko Hitzaldia</b> (Irailak 20)	Banaka Taldean	
Irailak 25-29	Praktikak	<p>2. <i>Zein da gure inguruneke kultura-ondarea?</i></p>	<p>2.1. Kultura-ondasunen adibideak bilatu eta aztertu (3. Eranskina)</p> <p>2.2. Taldeko kideek osatutako adibideak (fitxak) bateratu.</p> <p>2.3. Kultura-ondasunen adibide batzuk elkarlotzen dituen gai edo ildo nagusi bat proposatu.</p> <p>2.4. Gai edo ikuspegi horren justifikazioa idatzi.</p>	Banaka Taldean
urriak 2-6	Praktikak			
Urriak 9-13	Praktikak			
Urriak 16-20	Praktikak	<p>3. <i>Gaiaren justifikazioa: zertarako balio du aukeratu dugun kultura-ondareak? Zer ikasteko aukera eskaintzen du?</i></p>	<p>- Argudiatzea landu eta txosten idatzia osatu:</p> <p>3.1. Gaiaren eta aukeratutako adibideen inguruko marko teorikoa edo testuingurua idatzi.</p> <p>3.2. Gaiaren balio didaktikoa eta ekarpenak Lehen</p>	Banaka Taldean
Urriak 23-27	Praktikak			
<b>Urriak 30-Azaroak 3</b>	<b>Modulu astea</b>			

			Hezkuntzari: onurak eta curriculumarekiko loturak.	
			<b>Bideo-edizio ikastaroa</b>	Talde bakoitzeko 2 ikasle
Azaroak 6-10	Klaseak	<i>4. LHko ikasleei kultura-ondarea ezagutarazteko bideo didaktikoa sortzea</i>	- Zehaztu zein maila edo ziklotarako sortuko den bideoa. - Hautatu bideorako kultura-ondasunen adibideak	Taldean
Azaroak 13-17	Klaseak		Bideoaren diseinua:	Taldean, zereginak banatu
Azaroak 20-24	Klaseak		- Gidoi literarioa - <i>Story board</i> - Erabiliko diren <i>software</i> eta baliabideak zehaztu	
Azaroak 27-abenduak1	Klaseak			
<b>Abenduak 4 - 8</b>	<b>Modulu astea</b>			Bideoa grabatu eta editatu
Abenduak 11-15	Klaseak		Txosten idatzia osatu Zuzeneko aurkezpena prestatu	Taldean
Abenduak 18-22	Klaseak		Lanak entregatu eta aurrez aurre aurkeztu	Taldean

## 2. ERANSKINA: Talde-bileren akta-eredua

	Lekua:	Hasiera-ordua:	Amaiera-ordua:
Taldearen izena:		Koordinatzailea:	
		Idazkaria:	
		Bozeramalea:	
Bertaratutakoak:		Bertan izan ez direnak:	
Landutako gaiak:			
-			
-			
-			
Hartutako erabakiak:			
Adostutako zereginak:			
Zer?	Nork?	Noiz?	Oharrak:
Hurrengo bilera			
Data eta ordua:		Lekua:	
Gai ordena:			
1-			
2-			
3-			

### 3. ERANSKINA: Kultura-ondasunen fitxa

**Hautatutako kultura-ondasunen datuak:**

Ondasunaren izena eta arloa:

Egilea:

Urtea:

Tokia:

Datuak non aurkitu dituzun:

**Deskribapena. Nabarmentzeko elementu historiko eta teknikoak:**

**Irudia (argazkia edo marrazkia)**

#### 4. ERANSKINA: Koebaluazio-galdetegia

##### IZEN-ABIZENAK:

Ondorengo irizpideen arabera, kalifikatu (0-10) zure taldekideak, eta argudiatu

KOEALUAZIOA		x		y		z		....		...	
		0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa
1	Taldean partaidetza aktiboa erakutsi du, bileretan kideen ekarpenak entzun eta kontuan hartuz, talde-lana erraztu eta dinamizatuz...										
2	Talde-elkarrizketetan ekarpen berriak eta interesgarriak egin ditu										
3	Talde-bilera guztietara joan da eta dagozkion zereginak eginda eraman ditu										
4	Esleitu zaion lana egitean ardura, dedikazioa eta kemena erakutsi ditu										
5	Lana egitean ordena eta zorrotasuna erakutsi ditu (kontsulta-iturrien erabilera, ekarpenak...)										
6	Bideogintza-lanetan sortzailea izan da eta ekarpen interesgarriak egin ditu										
7	Adierazpen-lanetan modu espresiboan aritu da eta aberastasuna erakutsi du										
8	Ahozko zein idatzizko gaitasun komunikatibo egokia eta aberatsa erakutsi ditu										
BATAZ BESTEKO NOTAK											
									GUZTIRA		.....



## 5. ERANSKINA: Irakasleen ebaluazio-txantiloia

ALDERDIAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
LAN-PROZESUA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde kohesioa</li> <li>- Hasieratik egoki kokatu dira</li> <li>- Ondo antolatu dira prozesuan zehar</li> <li>- Bizitasuna erakutsi dute aurrerapausoak ematerakoan: informazioa bildu, baliabideak bilatu, laguntza eskatu...</li> <li>- Interesa eta inplikazioa</li> <li>- Sakontasuna erakutsi dute</li> <li>- Adierazgarritasuna eta sormena baliatu dituzte proposamena bideratzerakoan</li> <li>- Ahozko komunikazio egokia: zuzentasuna eta jarioa</li> </ul>
TXOSTEN IDATZIA	<p><b>Aurkeztutako idatzizko informazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioaren antolaketa eta egokitasuna</li> <li>- Ideiak modu argi eta zehatzean azaltzea, koherentziaz eta kohesioz</li> <li>- Terminologia, ortografia eta gramatika</li> <li>- Planteatutako galderak bideratzerakoan (ikerketa eta heziketa-ikuspegia) erabilitako informazioen aberastasuna eta hausnarketetan erakutsitako sakontasuna</li> </ul>
BIDEOA	<p><b>Ikuspegi didaktikoa bideoaren planteamenduan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukeratutako informazioaren egokitasuna zehaztutako adinaren arabera: neurrian, ulerkorra, ondo antolatua eta jarraitzeko erraza</li> <li>- Informazioa transmititzeko moduaren egokitasuna.</li> </ul> <p><b>Ikus-entzunezko lengoaiaren baliabideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gidoi literarioa eta narrazioaren planteamendua.</li> <li>- Hitzaren, irudiaren eta soinuaren erabilera.</li> <li>- Bideoan transmititzen den adierazgarritasuna.</li> <li>- Sormena eta originaltasuna.</li> </ul>
AHOZKO DEFENTSA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkezpen argia eta ondo antolatua.</li> <li>- Edukien egokitasuna.</li> <li>- Adierazpena: hitzekoa eta ez hitzekoa.</li> <li>- Aurkezpenaren kalitatea (baliabideak, sormena, erritmoa...)</li> </ul>
IKASLE BAKOITZAREN EKARPENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldearekiko konpromisoa eta partaidetza aktiboa.</li> <li>- Gaitasun komunikatiboa.</li> <li>- Bere lana eta ekarpenak.</li> </ul>